

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 231. alea - 2018ko uztaila



**Haurrentzako liburua
plazaratu du Nerea Loiolak**



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!



Zuhatzia

943 191 383
berriketan@zuhatzia.com



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Ute gustian zabalik


Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA



ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA



50 URTE

BURU - ZURI

Taberna

- Ofartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

k

kutxabank



Hazirik
ZURE EKODENDA

San Roka Kalea 6, DEBA
telf.: 943 02 99 63
e-mail: hazirik@gmail.com

Calbeton



JATETXEA

Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

A D

ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com

HONDARTZA, 2 - BEHEA Tel.: 943 192 127
20820 DEBA (GIPUZKOA) Fax: 943 192 482

AURKIBIDEA

04

GUTUNAK

“Gure hitza ez du inork epaituko”, “Debako Arte Eskolako langileen jakinarazpena”...

08

ERREPORTAJEA

Jokin Oria eta Bingen Esturo gazte debarrak EuskarAbentura espedizioan lanean

10

ALBISTEA

Deba eta Mutriku batzen dituen zubi zaharrenen zati bat erori da

12

ELKARRIZKETA

“Harri bat poltsikoan” liburua idatzi du Nerea Loiolak. Bere lanaz aritu gara *Berriketan*

14

ALBISTEAK

Josette Dacostaren erakusketa klaustroan; Eskualdea elkarlanean Euskaraldia prestatzen

Euskal Jaia iragarriko duen kartela aukeratzeko erakusketa eta herri bozketa

Aukeratuko al dugu berriz ere denon artean Euskal Jaia iragartzeko kartela? Uztailaren 9an amaitu zen Zuhatza Euskara Elkarteak antolatutako kartel lehiaketan parte hartzeko epea. Eta orain, lehiaketara aurkeztutako lan horiek ikusi, baloratu eta gehien gustatzen zaizuenaren aldeko botoa emateko aukera duzue herritar guztiok.

Uztailaren 26an (osteguna) egingo

da kartela aukeratzeko erakusketa eta herri bozketa. Iluntzeko 19:00etatik aurrera izango dira lanak ikusgai, plaza zaharreen (euria egingo balu, udaletxe azpian). Kartel irabazleak 300 euroko saria jasoko du aurten ere.

Garai berriko XXI. Euskal Jaia irailaren 29an (larunbata) ospatuko dugu Deban. Hitzordua antolatzeko lanei aurrez heldu nahian, Zuhatza elkarteak

lehen batzar ireki bat egin zuen ekainaren amaieran eta irailaren hasieran egingo dira hurrengo deialdiak.

Bien bitartean, dena den, gogoratu uztailaren 26an hitzordua dugula Euskal Jaia iragarriko duen kartela aukeratzeko herri bozketan. Guzti-guztiok zaudete gonbidatuta. Animatu eta parte hartu!

Zuhatza Euskara Elkarte



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Saiburordetza) druz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkarte. Deba.

Kolaboratzaile berezia:

Mendata BHIko prentsa tailerra.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Hizkuntza ardura: Lukax Dorronsoro eta Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Erein argitaletxea

Publizitatea: Joseba Escudero eta Koldo Aperribai

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Inprimategia: Euskalinpri

Lege gordailua: SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 1.500 karaktere izan beharko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Gure hitza ez du inork epaituko



San Ferminetako talde bortxaketa-
ren auzian kondenatutako bost eraso-
tzaileak aske laga izanak sumindura
piztu du jendartean. Baldintzapeko
askatasun neurriaren berri izan genu-
nean, Deban ere, Euskal Herri eta
espainiar estatuko beste hainbat hiri eta
herritan bezalaxe, elkarretaratze jende-
tsua izan zen. Hona hemen orduan
esandakoak:

*Emakume, sala ezazu, justiziak egingo
baitu haiek ordain dezaten.*

*Emakume, sala ezazu, guk babestuko
zaitugu.*

Honelako esaldi hutsak, zentzurik
gabekoak, hipokritak entzun behar
ditugu askotan.

Justizia ere haien alde dute, justizia
patriarkala da, matxista.

Kalean gaude, ez soilik Iruñeko
bortxaketa kolektiboarekin gertatu

dena salatzeke (bai, bortxaketa izan
zen, eta ez abusua), baizik eta epai
hauen bidez, epaileek gizoni emaku-
meak bortxatu, mespretxatu eta erail-
tzeko askatasuna ematen diotelako
ere. Ez da kasu isolatua, behin eta
berriz gertatzen ari den arazo larria
baizik, denon arazoa. Horregatik
gaude hemen gaur, (in)justizia patriar-
kalaren aurrean, herri erantzun femi-
nista ematen.

Honelako epaiekin gure gorputzak
askatasunez kontsumitzeko objektu
direla adierazten diotelako jendarte
zabalari.

Baina ez, ahizpa, lagun, emakume
kide... ez dugu onartuko. **Justiziak ez
bagaitu defendatzen, gu geu defen-
datuko gara. Emakumeak gara,
ausartak gara, kalean gaude, egongo
gara, eta ez dugu beldurrik. Erasoen**

**aurrean, autodefentsa feminista era-
biliko dugu.**

Halaber, jakinarazi nahi dizuegu,
Deban ere gerta daitezkeen eraso sexi-
tak eta matxistak prebenitzeko, eta ger-
tatuz gero hauen aurrean esku hartze-
ko protokolo bat egin dugula. Denon
nahia eta ardura da Deba tratu onen
herria izatea; beraz, oraingo honetan,
laguntza pixka bat eskatuko dizuegu:
**uztailaren 21ean eta 28an, 13:00etatik
15:00etara postu bat jarriko dugu pla-
zan** tabernentzako eta txosnetarako
protokoloarekin eta gune horietan era-
soak onartzen ez direla adierazten
duen afixarekin; poltsak ere izango
ditugu salgai. Ahal duzuen heinean,
pasa mesedez protokoloa eskuratzera.
Aldez aurretik, mila esker!

Debako Talde Feminista

San Juan bezpera eta dantza

Harrigarria San Juan bezperan ger-
tatutakoa. Urtero legez, txistulariek
San Juan zortzikoa jo ondoren, GURE
KAIkoak hasi dira suaren bueltan dan-
tzan. Lehenengo saioa bukatu, bigarre-
na egin eta fandangoa dantzatzen has-
teko minutu erdiko tartean, jende

uholde batek sua eta dantzariak ingu-
ratu ditu. Dantzariak dantzan ikusten
zeudenak zur eta lur... kalejirarik egin
gabe, oinez irten dira plazatik dantza-
riak. Inork ez ditu ez dantzariak ez
txistulariak txalotu.

Itziar Arana



Debako Arte Eskolako langileen jakinarazpena, eskola ixteko arriskuaren aurrean

Debako Artisautza Ikastegia, "Arte Eskola" izenaz ezagunagoa, betiko ixteko arrisku bizian dago. Horrela ikusi dugu ikastegiko langile guztiok ekainaren 7an Patronatuko Zuzendaritzarekin (Debako Udala) izandako bileran.

Bilera horretan ez dira inola argitu gure lanpostuen iraupenaz eta geroaz ditugun zalantzak, Patronatuko Zuzendaritzak erantzun ziurrik ez baitu eman. Hori horrela, eta gezurra badirudi ere, ikasturte amaieran gauden honetan, ekainean, ez dakigu oraindik ezta irailean gure eskolako atak berriro irekiko ote diren ere. Udal ordezkariak esandakoaren arabera Eusko Jaurlaritzak erdira murriztu du aurreko gure eskolarako diru-laguntza, eta horrek biziki zaildu du eskolaren iraupena. Hala ere, Debako Udalak, langileen eskariz, konpromiso hau hartu du: Eusko Jaurlaritzarekin egingo du bilera, Arte Eskola irekita mantentzeko irtenbideren bat bilatzearen.

Gure eskolak 35 urteko ibilbidea egin du, eta gaur egun artisautza-irakaskuntzak ematen dituen zentro bakarra da. Izan ere, prestakuntza integral bat ematen da, tailer-ordu nahikoare-

kin, eta ondorioz eskolatik ateratzen diren artisautza-teknikariak behar bezala gaiturik daude artisautza-munduari banako erantzunak emateko, eta arteari zein irakaskuntzari irtenbide teknikoak emateko.

Institutueta arte-batxilergoa sortu zenean, orduko irakasle gehienak gure ikastegitik igaro ziren, ezaguerak birziklatzeko edo eguneratzeko (tailer-orduak ia guztiz desagertu dira arte-batxilergoetako oraingo prestakuntzatik).

Gaur egun arte aplikatuak "arte" baino maila gutxiagokotzat jotzen direla sobera konturatuak gara. Era berean, artisauak ere gutxietsita daude; eta puntu horrekiko, esan behar dugu bide batez kidego horretan emakumeen kopurua nabarmena dela, eta ez dugu uste hori txiripa hutsez gertatu denik.

Oraingo garai hauetan nagusi dira tituluak, master-negozioak eta komisariotzak; baina arte aplikatuak goimailako eskola ofizialak sortzea gainditu gabeko irakasgaia da oraindik. Horrelako eskolak noizbait abiarazi behar badira, eta kultura eta hezkuntza hiriburuetatik deszentralizatzeko beha-

rra kontuan hartuz, ondo legoke Deba eskualdetik hasia.

Gure ingurutik urrundu behar izan gabe ere, eta artearen munduari begiratu bat emanez, Jorge Oteizaren Apostoluen frisoa Arantzazun badago, harri-teknikarien lanari esker da; Nestor Basterretxearen eskulturarik ez genuke izango, ez bada zur-teknikarien lanagatik; Eduardo Chillidak ezin izango zituzkeen bere lurrak garatu, zermika-teknikari baten esku-hartzerik gabe. Artista horien grabatuak ere ezin ziratekeen egin grabatu-teknikarien parte hartzerik gabe. Gaur egun harro sentitu gaitzke izen handiko artistak, besteak beste, Philippe Parreno, Cristina Iglesias, Miquel Barceló, Jaume Plensa eta abar Eibarko Alfa-Artera etorri direlako, beren piezak galdatzera; baina jakin behar dugu hori ezinezkoa izango zatekeela, aldeztatik teknikariak prestatu ez balira.

Oraindik garaiz gaude gure eskuetan jaso dugun kultura-ondarea behar bezala preziatzeko, onbideratzeko eta alferrik galtzen ez uzteko.

Debako Artisautza Ikastegiko langileok

Itxieraren aurkako sinadura bilketa interneten

"Debako Arte Eskola, Euskal Herriko eskola bakarra, bizirik nahi dugu!" lelopean, azken asteotan sinadura bilketa abiatu dute artisautza ikastegiko langileek interneten: change.org plataforman ez ezik, sare sozialetan ere presente dago deialdia.

Hala dio sinadura bilketak (change.org-en) oinarri duen idatziak:

"1969an, Oteizak bere ametsa errealitate bihurtu eta Deban hezkuntza proiektu bat martxan jarri zuen. Lehen hazia izan zen hura, sustrai sendoak eman zituena eta gaur egun arte bizirik egon dena.

Euskal Herriko eta munduko baz-

ter guztietatik etorritakoek beren bizitzako lanbide bihurtu dute ikasitakoa, artisau profesional bilakatuz.

Gaur arriskuan dago eskolaren etorkizuna, azken urte hauetan Debako Udalaren borondate eta ardura faltaren ondorioz, besteak beste".

DEBADEZINE Zine Klub Elkarteak amaitu du denboraldia

Handia filma eta ondoren mokadu batekin bukaera eman diogu Debadezineren 17-18ko denboraldiari. Orain bai, zenbakiak begiratu eta balantzea egiteko ordua iritsi da.

Hogeita lau film proiektatu ditugu, sei 2017an eta besteak aurten. Hasieran lotsa pixka batekin edo, hamabostetik behin izaten genuen emanaldia. Gero, tarteko igande horietan, klasiko bat sartzea bururatu zitzaigun. Eta azkeneko, batere lotsarik gabe edo, film modernoak jarri ditugu igandero.

Denak ez dira Debadezineren programaziotik iritsi. Udaletxearen bitartez lau emanaldi osatu dira: lehenengoa, *Pedaló*, hain urruti dirudien urriaren 29an. Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna zela eta, *Volar*. Euskararen Egunarekin lotuta *Pikadero*. Eta azkena, *Handia* hain zuzen ere. *Pikaderoren* kasuan izan ezik, besteetan egileen azalpenak entzuteko aukera izan dugu: *Pedalóren* eragile eta aktore bat Deban dugu, eta ikusle goaren jakin-min guztia ase zuen bere agerraldian. *Volar* proiektatu zenean, filmean parte hartzen duten bi emakume bertaratu

ziren eta bai filmari eta bai beren errealtateari buruzko hainbat zalantza argitu zizkiguten. *Handiaren* zuzendariaren presentzia freskoago dugu, duela gutxi izan baitzen gurekin. Aitor Arregi herriraino hurbildu zen eta oso modu apalean filmaren jazoera asko eta asko aditzera eman zizkigun, beharrezko intriga utzi bazigun ere.

Programazioa gorabeheratsua izan da. Film batzuek arrakasta handia izan dute, dibertitu edota harritu egin gaituztelako, eta beste batzuek, berriz, erreakzio desberdinak eragin dituzte, gizartean sor daitezkeen suntsiketa eta bortizkeria islatzen zutelako akaso. Uda bukaera aldera, irailan, hurrengo denboraldiari hasiera emango diogu programazio berri batekin. Zaila bada ere, denon gustuentzako aukerak eskuratzeko ahalegintzen jarraituko dugu.

Partaidetzari dagokionez, guztira 1506 ikusle izan gara, batez beste 63 film bakoitzeko. Baina datu zehatzak emanez, errekorra *Pedalók* lortu zuen, ehun lagunekin, eta gutxien *El gran dictador*ek, berrogeita batekin.

Bazkideak egin ditugu elkartean.

146 izen eman dira orain arte. Urteko kuota hamar eurokoa da; beraz, 2019an kanpaina berritzen jardungo dugu. Orain arteko komunikazio bidea mantenduko da, edozein hutsaldi ekiditeko ahaleginak eginez.

Eskerrak eman nahi dizkiogu bereziki Kultur Elkarteari aretoa eta ekipoa uzten baitizkigu filmak ikusi ahal izateko eta bilera gela gairen bat aztertu behar den bakoitzean. Baita ere lehenengo urte honetan pelikulak proiektatu ahal izateko lizentzia ordaindu duelako. Azpiegitura eta laguntza ekonomiko horiek gabe ezinezkoa izango zitzaigukeen hasiera ematea ekintza honi.

Halaber, eskertu nahi diegu Udaletxeari eta bere ordezkariari babesa, prestutasuna eta laguntzeko jarrera, gorago aipatu diren ekarpen eta ekimenak ahalbidetu baitituzte.

Honek guztiak animatzen gaitu jarraitzera.

San Juan egunera arte iritsi gara eta irailan espero zaituztegu berrira.

Eskerrik asko guztioi!

Debadezine Zine Klubeko Batzordea

Ohitura zaharrei eutsiz



Iruditan jaso ditugu aurten ere San Juan eta San Pedroren bueltan egindako hitzorduak. San Juan bezperan, suaren inguruan jende ugari bildu zen plazan eta dantzak, jauziak, musika, erromeria... izan ziren protagonista beste behin ere; eta sua, nola ez. Biharamunean, berriz, Santa Katalinan izan zen hitzordu nagusia. Urteroko meza ermitaren kanpoan egin zuten –emakumezkoek eskainia– eta, ondoren, txorizoaz eta saldaz gozatzeko aukera izan zen. San Pedro bezperari dagokio azken irudia. Ohiturei eutsiz, zahagiak erre zituzten ekainaren 28ko gauean eta, segidan, dantza saioa egin zen.



Ander Salegi

Udako programazioa Debako Gaztelekuan



Eman diogu hasiera udari Gaztelekuan!! Donosti Cup futbol txapelketan parte hartu dugu neska zein mutilekin, munduko lurralde ezberdinetako arerioekin gure indarrak neurtuz. Izugarri ongi pasa dugu!! Bestalde, GazteFutbol taldearekin, Bergarako gazteen aurka partidu bat jokatu genuen Errotazarren, denboraldiarekin amaitzeko.

Sopelako kanpinean ere izan gara, Bizkaiko txoko ezberdinak ezagutuz.

Hori gutxi ez, eta, besteak beste, Arcachoneko ur parkean, Santa Klara uhartean, Huescan, Nafarroan eta Saloun egingo ditugun egonaldiak geratzen zaizkigu.

Debako Gaztelekuko hezitzaileak

iritzia

Burua landu, zaindu



**ELI
EGANA**

Aurrekoan, lankide batek lanera huts egin, bere berri galdetu eta bajaran zegoela komentatu zidaten. Ah, gaixorik egongo da -pentsatu nuen-. Geroago, beste kide batek jakinarazi zigun lanean liskarren bat izan zuela eta hurrengo egunean larriturik medikuak estresagatik baja eman ziola. Erantzunarekin jakin-nahia piztu eta, datuen arabera, laneko lau bajetatik bat halako arrazoiengatik izaten dela irakurri nuen eta beste hiruak gripea bezalako gaixotasunengatik eta haurdunaldiengatik.

Gaur egun, osasuna eta itxura zaintzea oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Horregatik joaten gara gimnasiora, korrika egitera, cross-fitera etab. Gainera, propietate osasuntsuak dituzten produktuak ere oso modan daude. Ez dago batere gaizki hori, baina burua lantzeaz zer?

Beste alde batetik, ikusten dugunaren %30a bakarrik barneratzen dugu. Gauza bat egiten gaudenean, gure burua beste gauzetara egoten da, astebururako planak pentsatuz, ardura ezberdinei bueltak emanez edota sare soziale-tan murgilduta. Despistatuta bizi gara.

Gure gizartean apenas dakigu zer den "burua entrenatzea" ekialdeko beste kultura batzuetan bezala. Hauen helburua atentzioa lantzea da, orainean gertatzen ari denaz guztiz kontziente izatea teknika ezberdinen bitartez. Frogatua dago horrela burua zentratuago, argiago eta orekatuago egotea lortzen dela eta, ondorioz, ongizate pertsonala, lanaren kalitatea eta besteekiko harremanak ere hobetzen direla. Buruari fisikoari adina garrantzia emango bagenio segur aski osasuntsuago egongo ginateke.



Jokin Oria eta Bingen Esturo, EuskarAbentura espedizioan

Uztailaren 1ean Maulen hasi eta hilaren 31n Getxon bukatuko da Euskal Herriko zazpi lurraldeak zeharkatzen dabiren ibilaldia. EuskarAbentura espedizioa da: euskara ardatz hartuta, eta Donejakue bide desberdinei jarraituz, 110 bat gazte ari dira ekimenean parte hartzen. 783 kilometro egingo dituzte guztira, horietatik 483 oinez, eta Debatik ere pasako dira hilaren amaieran. Espedizioa hasteko pare bat egunen faltan, abenturan lanean dabiltzan Jokin Oria eta Bingen Esturo gazte debarrekin harremanetan jarri zen *Berriketan*. Gogotsu eta ilusioz zeuden biak, esperientzia berri bat bizitzeko prest.

Uztailaren 1ean, EuskarAbentura espedizioa osatzen duten 140 lagunak Maule-Lextarren batu ziren abenturari hasiera emateko. Urduritasun eta ilusioarekin bat egin zuten abenturakideek, biharamunean lehen etapari ekiteko asmoz; 21,2 km+700 metroko desnibela zuen aurretik taldeak. Abiapuntua eta lehen eguneko erronka baino ez zen, ordea. Uztailaren 31ra arte luzatuko den espedizioan 483 kilometro oinez eta guztira 783 km egin beharko baitituzte.

Euskal Herriko eta diasporako hamaika txokotako 16-17 urte bitarteko 110 gazte batu dira taldera. Gazteen gehiengoa, %43, bizkaitarra da, %21 nafarra, %19 gipuzkoarra eta %13 arabarra. Zuberoa, Lapurdi eta Behe Nafarroatik gazte bana dago taldean eta diasporako bi; bat Washingtondik etorria eta bestea Patagoniatik. Gazteen %65 emakumeak dira, 72 neska eta 38 mutil. Abenturan parte hartzeko proiektu bat egin behar izan zuten aurrez, eta hortik egin zen parte-hartzaileen aukeraketa.

Hiztun gazteen aktibazioan eragin nahi du Euskaraldiaren urtearekin (ustekabea) bat egin duen ekimenak. Baina

euskararen erabilera sustatzeaz gain, baditu beste xede batzuk ere, hala nola euskal lurraldea sakonago ezagutzea eta gazte euskaldunen sarea osatzea.

Quetzal bidea eredu

Ruta Quetzal modukoa da espedizioa; halaxe aurkeztu edo laburbildu dute antolatzaileek. Etapa bakoitzaren amaieran eta atsedean egunetan askotariko ekintzak egiten ari dira gazteak. Hartara, Euskal Herriko geografia, historia, kultura eta errealitate soziolinguistikoko sakontzeko parada izaten dute. Done Jakue bidea jarraitu eta Unescok gizateriaren ondare izendatutako guneak ezagutzen dabilta.

Izen bereko irabazi asmorik gabeko elkarteak sortutako ekimena da EuskarAbentura. Erakunde desberdinen laguntza eta babesa lortu dute arduradunek. Eta guztia ondo irten dadin, 110 gazteekin batera 30 helduz osatutako lantaldea dabil espedizioa gidatzen.

Lantalde horretako kide dira, hain justu, Debako bi gazte: Jokin Oria Iriondo eta Bingen Esturo Etxabe. Gidari

edo garraiolari lanetan ari da lehenengo, eta begirale dihardu bigarrenak. Espedizioan abiatu aurretik, eurekin kontaktuan jartzea lortu zuen *Berriketan*-ek. Urduri eta gogotsu zeuden biak abenturari ekiteko.

EHUn Ingeniaritza Mekanikoa ikasten ari da Jokin Oria. 21 urte ditu eta Deban bizi da. Interneten lan eskaintzak begiratzen ari zela topatu zuen abentura honetan gidari lanetan aritzeko "aukera ikaragarri" hau; curriculum bidali, elkarrizketa egin eta aukeratua izan zen. Eta horretan dihardu uneotan: furgoneta gidaria da, garraiolari lanak egiten ditu eta materialen ardura ere badauka.

Espediziora zer sentsazioarekin abiatzen zen galdetuta, zera kontatu zigun: "Urduri alde batetik, jende asko ezagutuko dudalako eta, bestetik, Euskal Herria beste modu batean ezagutzeko gogoz".

"Gogotsu" agertu zitzaigun Bingen Esturo ere. Deban jaioa, Granadan bizi da gaur egun 28 urteko gaztea. Jarduera Fisikoa eta Kirol Zientzietan lizentziatua, Heziketa Fisikoko masterra egin du Granadan eta entrenatzaile pertsonala,

783 kilometro eta 31 etapa guztira



Ibilbideak 31 etapa ditu guztira eta Euskal Herriko zazpi probintziak zeharkatuko ditu.

Eta bakoitzean, ibilbide ederrak eta ondare historiko artistikoa ezagutzeaz gain, ekitaldi ugari izaten dituzte. Geurean, adibidez, 26. etapan ibiliko dira espedizio-kideak. Zarautz atzean utzi, Getariatik pasa, flyscha ikusi eta Itziarrera uztailearen 26ko

arratsaldean iristea da asmoa –bertan geratuko dira lotan, frontoian-. Hilaren 27an, Ekainberri goizean bisitatu eta sormen lanaren lanketa librea egiteko tartea izango dute arratsaldean. Eta Markinarako bideari hilaren 28an heldu beharko diote.

www.euskarabentura.eus atarian ematen dute espedizioaren berri, egunez egun.

pilates, yoga eta beste hainbat ekin-tzetako irakaslea da. “Gogotsu nago, badakit gogorra izango dela, baina batez ere asko ikasiko dugula uste dut; bidean zehar izango ditugun esperientziez, Euskal Herriko zoko eta ingurunez, euskara eta historiaz. Gazteen portaeraz, taldeko barneko elkarlanean, elkarbizitzan eta baita barne aspektuetan ere; pazientzia, errespetua eta abar”.

Duela hamar urte, espedizioko antolatzaileetako batekin topo egin zuen Bingenek euskararen diasporaren aldeko proiektu batean Ipar Euskal Herrian. Ordutik hainbat irteera egin dituzte batera, eta hark animatuta murgildu da orain debarra EuskarAbenturan. Hamar gazteren begiralea da uneotan, baita Zarautz eta Deba lotuko dituen ibilbidearen arduraduna ere. Era berean, gorputz hezkuntzarekin zerikusia duten alderdiak ere jorratu behar ditu partaideekin (luzaketak, lasaitze ariketak, talde dinamikak, masajeak...).

Espedizioa azken txanpan sartuta dago jadanik. Getxon bukatu aurretik,

Debatik ere pasako da (uztailearen 26an izango dute Zarautz-Itziar etapa).

“Espedizioaren ibilbidean aurreikusita zegoen Deban pare bat eguneko egonaldia egitea, atsedean hartzeko; baina Udalak ez digu instalazioak erabiltzeko baimenik eman –argitu dute gazteek- eta Itziaroko frontoian geratuko gara”.

Lanerako gogoa eta ardura

Bidean aurki ditzaketen zailtasun edo oztopoen gainetik, esperientzia berriari heltzeko gogoz zeuden bi gazteak ekainaren amaieran. “Erantzukizun handiarekin” abiatzen ziren biak EuskarAbenturara. “Hor egongo naiz, behar denean laguntzeko eta espedizio-kideei zama arintzeko prest”, zioen Jokinek. “Eta gure esku dago gazte hauek ahalik eta esperientzia positiboenarekin bueltatzea etxera –erantsi du Bingenek-; baita, askorentzat euskarazko lehenengo abentura izanik, hizkuntzarekiko lotura sendoago bat izatea eta bizitza osorako kontaktuak eta motibazioa topatzea ere”.



GOIZANE AIZPURUA

ETA poETA

Etxean bada Porcelanas Bidasoako kafe joko bat. “Las tazas de Bandrés” deitu izan diogu beti ETA gurasoen ezte eguna heriotza zigorren epaiketen egun garaian eman zela gogorarazten digu.

Txikitan bazen amamaren eserleku ondoko altzarian Txabi EtxebarriETAren argazki bat. Urrun bizi eta inoiz ikusten ez genuenez, paga ematen ez zigun ahai-de ezezagunaren irudi monokromoa.

Behin izekoren etxeko atea ireki nuen ETA justizia atzetik desagertuta zebilen osaba aurkitu nuen ate atzean beldurrez begira. Orduan ere bere azkena izango zela uste izan zuen enegarrenez.

Ganbara zaharrean oraindik orain egunkari orririk bada gupidagabe alde bateko ETA besteko gorpu zulatuak lehen planoan erakusten dituen. Heriotza eguneroko gosariko kafeina pikoa zenekoa.

Afalorduan korrika joaten nintzen gurasoengana izeko “Gaur Egunean” agertzen zela ETA. Telebistaren lilurak dakarren emozioz arrazoa zein zen ez nekienaren ezjakintasunez.

ETA orain zer?

Bandresen kikara batek heldulekua Loctite merkez itsatsita dauka, baina gurasoek oraindik bertan gosaltzen jarraitzen dute kafe disolbagarri zaporegabea. Txabiren argazkiak izekoren piano gainean dirau. Noizean behin “Ez, ez dut nahi” nota motelen erritmora dardara egiten du, heriotza zigorrari ihes egin baina 18/98 makro-sumarioaren beldurrak heriotza ekarri zion osabaren erretratuari zeharka begiratzen diola. Ganbarako egunkari horituek espumiloi artean plastikozko jaiotza irudiak batzen dituzte. Telebistan Gaur Egunaren ostean “Bisitaria” izekorenean izan dela ikusten dut.

Historia idatzi zuten, amaierako punturik gabe.



XIX. mendearen erdialdeko arkitektura gipuzkoarraren lan adierazgarrietako bat da zubia. Egungo egoera ikus daiteke irudietan.


Zubi zaharraren zati bat hondoratu da

Deba eta Mutriku lotzen dituen harrizko zubi zaharraren oinarri bat hondoratu egin da, eta zubiaren zati batek behera egin du. Zubiaren erdiko zutabea dago kaltetuta eta gaineko zubi begiko kareharri grisez estalitako harlanduzko zatiak ibaira jausi dira.

Ezbeharra uztailaren 5ean gertatu zen, goizaldeko 05:15ak aldera, eta ez zen zauriturik egon. Debako Udalak jakinarazi du gertaeraren zergatia aztertzen jarraitzen dutela, arazoa lehenbait lehen bideratzeko eta beharrezko neurriak hartu ahal izateko. Oraindik ez da argitu zergatik egin duen behera zubiak. Iturri batzuek adierazi dutenaren arabera, dena den, erdiko zutabeak jasotako higadura dela eta gertatu da; ezbeharra azken hilabete-etako euriteen ondorioz izan dela diote.

Zubiaren egoera ikusita, badirudi konponketa lanek luze joko dutela. Seguratasuna bermatzeko, oinezkoek erabiltzen duten zubiaren sarbide biak itxi dituzte. Era berean, Udala hango instalakuntzen egoera begiratzen ari da (ura, saneamendua, gasa eta argiteria publikoa). Eta, bestetik, Pasaiako Itsas Kapitaintzari eskatu zaio galaraz dezala zubitik gertu ontziak pasatzea, kalte handiagoak saiheste aldera. Deba eta Mutrikuko udalak harremanetan daude Portu Zuzendaritzarekin, Itsasertz Zerbitzu Probintzialarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturarako Departamentuarekin.

Zubi zaharra ixteak eragozpenak sortu ditu. Mutrikuko Urazamendikeko auzotarrak, esaterako, ezin dira Debara oinez etorri betiko bidetik eta Artzabaletik etortzea beste aukerarik ez dute oraingoz. Hainbat komunikabideren esanetan, 100 familia inguru bizi dira auzoan gaur egun, eta kezkatuta agertu dira. Izan ere, askok Deban egiten dute bizimodua eta lehenbailehen



konponbide bat ematea eskatu dute. Askok autorik ez dutela argitu dute eta zubia itxia dagoen bitartean beste alternatiba batzuk izatea eskatu dute. Oraingoz, autobusa Urazamendik auzoan gelditzen hasi da, bi noranzkoetan joan-etorriak egiteko.

Debatik Casacampora zuzenean pasatzea edota Mutriku aldera zubi zaharretik oinez joatea ere, noski, galarazita dago.

2016an bete zituen 150 urte Deba, Mutriku eta Ondarroaren arteko ibilbidea errazten duen gure harrizko zubiak. Iazko urte amaieran, zubia txukuntzeko hainbat lan amaitu zituzten. Besteak beste, lurra berritu eta zubiaren kanpotik zihoazen zerbitzuen hodiak (ura, gasa, argiteria publikoa eta saneamendu urak) zubiaren lurzoru azpitik igarotzeko lanak egin zituzten.

Zubiaren heren baten jabetza Mutrikuko Udalak du eta beste bi herenen jabetza du Debako Udalak.





AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



Gipuzkoako kosta igerian zeharkatu du Marea Urdinak, autismoa ezagutarazteko helburuz



Ander Salegi

Uztailaren 7an eta 8an egin zen Marea Urdina. Gipuzkoako kosta igerian zeharkatu zuten ekimenarekin bat egin zuten kirolariek, autismoaren berri eman eta gizartearen sentsibilizatzeko helburuarekin.

Guztira, 63 kilometro (34 itsas mila) egin zituzten igerilariek erreleboak. Bi etapa izan zituzten egitasmoak: lehenengoa hilaren 7an egin zen, Saturrararen hasi eta Orion amaituz (27 km). Bigarrena, berriz, hilaren 8an egin zuten, Orion abiatu eta

Hondarribian bukatuz (36 km).

Deban ateratako irudia duzue hor goian. Uztailaren 7an, goizean, Azkoitia, Azpeitia eta inguruko beste herri batzuetatik etorritako hamarnaka igerilarik ere bat egin zuten Marea Urdinarekin, zeharkaldi solidarioan parte hartuz.

Antolatzaileek emandako datuen arabera, "gizartearen %5ak ezgaitasunen bat du eta konkretuki %1ak autismoa du. Gipuzkoan 1.500 pertsona baino gehiago daude egoera horretan".

Egokitutako bainu zerbitzua hondartzan

Gipuzkoako beste hainbat hondartzatan bezala, Deban ere badago itsas bainu egokituaz gozatzeko aukera. Mugikortasun murriztua duten pertsonen zuzendutako zerbitzua da, eta itsasoan "modu seguruan eta oztoporik gabe" bainua hartzeko aukera eskaintzea du helburu.

Mugikortasun mugatua duten pertsonen bideratutako proiektua da, menpekotasun egoeran dauden herritarrei,

aniztasun funtzionala dutenei edota adinekoei laguntzeko helburuz sortua. "Aisialdi eta denbora libreko ekimenean beraien parte-hartzea errazten du, itsas inguru naturalaz gozatzeko aukera eskainiz", laburbildu dute zerbitzua arduradunek. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan Debako Gurutze Gorriko sorospen zerbitzua-rekin (943 19 10 32 telefono zenbakira deituta).

Odola emateko aukera egongo da uztailaren 27an

Datorren uztailaren 27an (ostirala) odola emateko saio berri bat burutuko da, arratsaldeko 17:00etatik iluntzeko 20:30era bitartean, Luzaro ikastetxean (Ifar kalean). Debako Odol Emaile Elkarteak antolatu du saioa eta bertan parte hartzeko deialdia egin du.

Odol-transfusioa eskubide bat baldin bada....

Odola emateak erantzukizun partekatua izan beharko luke



JON AMUTXASTEGI

Ezin bizi mugikorrik gabe

Gaua zen duela aste batzuk Bilbo Ermua bidea egiten duen autobusean sartu nintzenean. Barrualdea oso ilun zegoen, baina bidaiari gehienek aurpegiak argiztatuta zeuden haien mugikorraren pantailengatik. Askok, gainera, entzungailuak zituzten belarrietan zintzilik. Autobusaren atzeko aldera joan nintzen, entzungailuak poltsikotik atera eta bidaiari gehienek bezala musika entzuten hasi nintzen.

Autobuseko ia guztiak haien mugikorrei begira zeuden, mezuak bidaltzen, musika entzuten edo eta jolastzen. Orduan ohartu nintzen zer nolako indarra duen mugikorrak gure egunerokotasunean. Badirudi mugikorrik gabe ezin garela bizi. Jada gure egunerokotasunaren zati bilakatu dira gailu hauek, gure izaeraren parte eta gure harremantzeko eran ezinbesteko bilakatu dira.

Momentu horretan ohartu nintzen maleta egiten dudak bakoitzean arropari bezainbeste garrantzia ematen diodala mugikorraren kargagailua ez ahazteari, edo eta mugikorrak batera baxua duen bakoitzean urduri jartzen naizela ia egun guztia iraungo duen ala ez pentsatzen. Autobuseko bidaiariari begira ohartu nintzen mugikorra behar bat bilakatu dugula, ezinbestekoa den gailu bat gure eguneroko bizitzan.

Musika gelditu nuen orduan eta entzungailuekin batera motxilan gorde nuen mugikorra. Momentu batez ahaztu egin nuen mugikorra zer zen ere. Ordu erdiko bidaiari leihotik begira pasako nuela erabaki nuen, baina hamar minutu pasatu ostean zarataka hasi zen mugikorra. Kasurik ez egiten saiatu nintzen arren, ezin izan nuen lortu iritsi berri ziren mezu horiei ez erantzutea.

NEREA LOIOLA PIKAZA

“Esku artean ditudan beste proiektuei heltzeko gogoz nago. Eroso sentitzen naiz haur literaturan”

“33 urte eta ama. Bi haur ederren ama. Ofizioz irakaslea. Harri bat poltsikoan sartuta Zarautzen bizi den debarra”. Hori da Nerea Loiola Pikazak (Deba, 1985) bere burua aurkezterakoan eman digun azalpena. Idazle gisa lehen urratsa egin berri du haur literaturan, *Harri bat poltsikoan* liburuaren argitalpenarekin (Erein), eta albiste horren aitzakian aritu gara berarekin *Berriketan*. Liburuaren nondik norakoak kontatu dizkigu, ipuina idatzi zuenetik argia ikusi duen arteko prozesua “emozionantea” izan dela aitortuz.

Argitaratzen duzun lehen liburua duzu hau. Idazteko ohitura zenuen lehendik ere? Edo berriki hasi zara luma (edo teklatua) astintzen?

Literatura nire bizitzaren parte garrantzitsua izan da beti, baina, orain arte, irakurlearen aldetik bizi izan dut batez ere.

Ingeniaritza Mekanikoan graduatua eta Bigarren Hezkuntzako Matematikako irakaslea. Kanpotik ikusita, ez dirudi lotura estua duenik horrek literaturarekin edo letren munduarekin...

Sormenak lotzen ditu denak. Ingeniaritzak badu sormenetik, arazoak ebaztetik, matematikak duen bezainbeste. Irakasleok ere sortzaile izan behar dugu ikasleak sortzaile izango badira. Literatura ere sorkuntza da. Horregatik aberasten nau, horrek motibatzen nau.

“Harri bat poltsikoan”. Kontaiguzu, Nerea, zer aurkituko du bertan irakurleak? Zelan laburbilduko zenuke liburua?


Segurtasun-gabezia handia duen eta bere burua maitatu ezinik dabilen haur

baten istorioa kontatzen da. Xana da protagonista, edozein haur identifikatzeko modukoa. Eta kontakizunak espero gabeko bidetik eramango du irakurlea, errealitatea fikzionatuz.

“Irakasleok ere sortzaile izan behar dugu ikasleak ere sortzaile izango badira. Eta literatura ere sorkuntza da. Horregatik aberasten nau, horrek motibatzen nau”

Aipatu duzu Xana izeneko haur baten istorio bat kontatzen digula liburuak. Sentimenduek ere badute garrantzia ipuinean, ezta?

Bai, noski. Sentimenduak daude ipuinean, sentimendua sortzeko. Sentsazioa dut, askotan, helduak garela haurrengan segurtasun gabezia eragiten dugunak, ez diegulako uzten haurrei gauzak bizitzen. Xanak zerbait erakutsi



Irudia: Erein argitaletxea

nahi digu. Bai haurrei, baita helduoi ere.

Istorioa idatzi zenuenetik ekainean Ereinen babesean argia ikusi duen arte... Nolakoa izan da prozesua?

Emozionantea, ipuina bidali eta segituan erantzun zidatelako esanez argitaratzeko asmoa zutela. Testu dokumentu bat izatetik marrazkiz hornitu eta liburua esku artean izaterainoko metamorfosia ederra izan da oso.

Rocio Irigoyenen marrazkiek ilustratu dute testua. Pozik emaitzarekin?

Lan bikaina egin du. Lortu du istorioaren esentzia iruditan jartzea. Espero dut elkarlan honek bide luzea izatea.

Argi izan duzu hasieratik haurrei zuzendutako ipuin bat egin nahi zenuela?

Ama naiz. Eta lo hartu aurreko uneak literaturarenak izaten dira gurean. Ipuinaren ideia seme zaharrenarekin ondu dut. Berari kontatzen hasi eta esan dezaket berarekin batera osatu eta moldatu dudala ipuina. Umeak epaile



eta iritzi-emaile zintzoak dira.

Deban aurkeztuko al duzu zure liburua?

Deban eta aukera sortzen zaidan leku guztietan. Nahi dut orain jendearengana iristea, nahi dut irakurleei zer iruditzen zaien jakitea. Eta egindako lanak oihartzun ahalik eta handiena izatea.

Haur literaturan urratsak ematen jarraitzeko asmoa daukazu?

Ilusionatuta nago. Uda heldu eta esku artean ditudan beste proiektuei heltzeko gogoz. Eroso sentitzen naiz genero honetan, beharbada ama naitzelako eta kontsumitzen dudana literatura parte handi bat haur literatura delako.

Galdetu ez dizugun zerbait nabarmendu nahiko zenuke, Nerea? Zurea da hitza...

Konturatu gabe ere, askotan denok daramagula harri bat poltsikoan. Ez dakit zuen galtzetan ondo begiratu duzuen...

Irakurketa tailerra Ostolaza udal liburutegian

Liburu bat irakurtzea munduarekin konektatzeko modu bat da, zirkin egin beharrik gabe. Bakarka irakurritako liburua besteekin partekatzea, liburu horren hamaika irakurketa deskubritzea, mahai baten bueltan, ipurdia aulkitik altxatzeko premiarik gabe.

Debako Ostolaza liburutegian badugu horren berri. Norberak bere kabuz irakurritako lau liburu partekatu ditugu besteekin, otsailetik maiatzera artean, hilaren azken asteazkenetan. Bi euskaraz eta bi gaztelaniaz: Uxue Alberdiren *Jenisjoplin*, Alejandro Palomasen *Un hijo*, Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia* eta Julie Otsukaren *Buda en el ático*.

Poliki hasi gara, apal, umil, eta liburuei buruzko iritziak azaltzeko ohitura geureganatu ahala, liburuen ostean gordetzen den unibertso aberatsak deskubritzen joan gara; eta, liburuak egiteko ofizioan murgiltzeaz batera, munduaz, bizitzaz eta pertsonenez mintzatzen bukatu dugu; eta, ondorioz, ohartu gara liburuak aitzakia ona direla besteen lekuan jartzeko,

besteen bizimoduetara hurreratzeko, bestearentzat beti "bestea" den norbera burua hobeto ezagutzeko.

Poliki hasi gara eta gogotsu amaitu dugu. Orain uda dator, beste plan batzuk, beste bizipen batzuk, beste irakurketa batzuk..., baina udazkenean itzuliko gara.

Ainhoa Aldazabal Gallasteguik hartuko du Yolanda Arrieta Malaxetxebarriaren gidaritza-lana. Ainhoak urteak daramatza antzeko lanetan, Markina-Xemeingo bibliotekan, esate baterako, eta gogotsu dator Debara.

Urriaren 24an Unai Villenaren *Hauts haietatik* liburua izango duzue hizpide; azaroaren 28an, berriz, Nelly Leyshonen *El color de la leche*.

Yolandak ohiko tailerrekin jarraituko du; LH-5ekoen idazketa sortzailearekin eta DBH-2ko gazteen irakurketa dinamizatzeko saioekin. Ez da urrutibiliko.


On egin!

Yolanda Arrieta Malaxetxebarria

Ohorezko matrikula Batxilergoan

IES Elgoibar BHI institutuko ardura-dunek jakinarazi dutenez, argazkian ageri diren bost ikasleak izan dira espediente akademiko onena lortu duten gazteak (ohorezko matrikulak eskuratu). Ezkerretik eskuinera: Sara Lili Gonzalez, Julia Ron Soto, Irene Makazaga Nuñez, Ainhoa Leyaristi Oñederra eta Haizea Egaña Unanue. Elgoibarko institutuko ikasleak dira guztiak, denak emakumeak, horietako bi debarrak dira (Lili eta Ron), eta Egaña itziartarra da. Zorionak!

Diploma banaketa ekainaren 29an egin zen, Elgoibarko Herri Antzokian, ikasturte amaierako ekitaldian.



Josette Dacostaren “Etxalde baten omenez” erakusketa ikusgai dago elizako klaustroan

“Etxalde baten omenez” izenburua du Debako Santa Maria elizako klaustroan ikusgai dagoen erakusketak. Josette Dacosta artistak (Bordele, 1944) baserri baten memoriari eskaini nahi izan dion erakusketa ikus dezake bertan bisitariak. “*Berrautia* du izena, eta ni bizi naizen herria inguratzen duten basoen bazterrean dago –azaldu du Dacostak berak–. Nafarroa Behereko, Iparraldeko, ohiko etxalde bat da, eta horma zuriak eta gorritz margotutako pertsianak ditu. Han bizi ziren, duela gutxira arte, nire lehengusina eta haren senarra...”. Erakusketa honetan ez dago Berrautiaren koadrorik, asko margotu izan baditu ere. Baina, haren presentzia leku guztietan dago presente.

Azken urteetan, abstrakzio baterantz gerturatu dela aitortzen du Dacostak. “Bertan, koloreak eta materialak dira artelana, irudikapen mota bakar bati ere erreferentzia egin beharrik

izan gabe. Gaur egun, nire margolanetan ez dago subjekturik. Margotzeko beharra sentitzen dudalako margotzen dut. Hitzekin baino gehiago, koloreekin adierazten dut nire burua. Pigmentuak nahastea gustatzen zait, materialak ukitzea eta txikitzea. Margotzen, zoriontsu naiz”.

Catherine Clerc kazetari eta arte-kritikariak halaxe laburbiltzen du artistaren obra: “Euskal Herriaz elikatzen da bere sentsibilitatearekin ikusten, zizelkatzen eta modelatzen dituen paisaiak asmatzeko, kolore biziak eta kontrasteak erabiliz, olioak, pigmentuak eta materia organikoak nahastuz, koloreari eta sentsualitateari abesten dioten argi biziak bere geografia lortu arte, gainditu eta hautsitako mugetan barrena”.

Uztailean eta abuztuan zabalik

Ekainaren 30ean inauguratu zen Josette Dacostaren erakusketa eta bere lanak uztailean eta abuztuan izango dira ikusgai elizako klaustroan. Uztaileko ordutegiari dagokionez, asteartetik igandera bitartean egongo da zabalik, 9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Abuztuan, berriz, egunero egongo da irekita, 9:00etatik 13:00etara eta 18:30etik 20:00etara bitartean. Debako erakusketa artistikoaren XIV. edizioa da aurtengoa.




Willy Berasaluzeren “Etxola-15” eskultura jarriko dute eskoilera bukaeran

Udalak antolatutako lehiaketa irabazi du artista debarrak

Udalak antolatutako I. eskultura sariketa Willy Berasaluzek irabazi du, 310 botorekin. Hamabost proiektu aurkeztu ziren lehiaketara, eta horietatik bederatzi hautatu zituen epaimahaiak, sormen, originaltasun eta kalitate irizpideei jarraiki. Azken erabakia, ordea, herritarren esku geratu zen. Astebeteko epea izan zuten aurrez aukeratutako bederatzi proposamenen artean gustukoena aukeratzeko. Guztira 1065 boto erregistratu dira; 83 presentzialak, eta 982 udalaren web orriaren bitartez emandakoak. Berasaluzeren proposamena izan da bozkatuena, 310 botorekin.

Orain hiru hilabeteko epea izango du irabazleak artelana gauzatzeko, eta amaitutako lana aurkeztutako bozetoarekin bat etorri beharko da. Eskoilera bukaeran kokatuko dute bere eskultura.



Bestetik, uztailearen 17tik abuztuaren 2ra, Willy & Sara Berasaluzeren “Etxolak” erakusketa artistikoa egongo da ikusgai Agirre jauregiko erakusketa gelan.

Debabarrena ere elkarlanean Euskaraldia prestatzen



SOARTE ARGAZKIAK



SOARTE ARGAZKIAK



Debabarreneko 80 lagun batu ziren ekainaren 27an Debako Zubi Zaharrean Euskaraldia ekimena bailaran elkarrekin egingo dutela azaltzeko. Izan ere, Debabarreneko herri guztietan Euskaraldia prestatzeko lanetan dihardute, herritarrak eta erakundeak elkarrekin, datorren azaroaren 23rako dena ondo antolatuta izateko.

Mallabia, Ermua, Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku herriek dagoeneko eman dute izena Euskaraldian parte hartzeko, Euskal Herri mailan 350 herri, auzo eta hiritan batera egingo den ariketa soziala gauzatzeko. Deba bailara oso-osoak parte

hartuko du: Leintz-Gatzagan hasi eta Mutrikuraino.

Hamarretik zortzik badaki euskaraz

Zortzi herrietako datuak bateratuta, Debabarrenean, ezagutzari dagokionez, %58,6 dira euskaldunak, %20,8 ia-euskaldunak eta %20,5 erdaldunak. Orduan, 10etik 8k euskaraz ulertzen du eta 10etik 6k euskaraz aritzeko gaitasuna dauka. Euskaraldia ariketa praktikoa izango da, erabilera erdigunean jarriko duena, eta ingurua eta herritarrak prestatuta, hamaika egunetan euskararen erabilera handitzea eta esparru berrietara zabaltzea izango du helburu, erabilera datuak ezagutzarenera gerturaztea.

Errealitate desberdinak, ariketa bakarra

Ez neurritz, ez izaeraz, ez soziolinguistikoki... ez dute antz handirik, ezberdinak dira bailarako herriak, baina praktika bera erabiliko dute egu-

neroko hizkuntza ohiturei astindua eman eta euskararen erabilerrari bultzada emateko: *ahobiziaz* eta *belarriprestak* aktibatu, prestatu eta hamaika egunez, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, aproba eginda. Hala, *ahobiziek* euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz egingo dute (lanean, etxean, lagun artean...), baita ezezagunekin lehen hitza, gutxienez, ere; *belarriprestak* berriz, dakiten guztiei euskaraz egiteko gonbitea egingo diete, beraiekin euskaraz egiteko eskatuko diete, nahiz eta *belarriprestak* euskaraz edota erdaraz erantzun. Herritar bakoitzak (16 urte beteta izatea eta euskara ulertzea dira bete beharreko baldintzak) erabakiko du nola parte hartu nahi duen ekimenean eta zein txapa jantziko duen; aldi berean, ekimena kolektiboa izango da eta Debabarrenean euskaraz bizitzeko aukera handia dagoela bistarazi eta sentitzeko aukera eskaini nahi dute Euskaraldia ekimenaren bitartez.

Kolorez Blai euskal udalekuak azken txanpan

Uztailarekin batera abiatu dira aurten ere Kolorez Blai euskal udalekuak. Hilabetea amaitu bitartean, bi txandatan banatuta, aurtengo edizioan izena eman duten 228 haur ari dira parte hartzen udalekuan eta 15 begiralek osatutako taldea ari da eurekin lanean. Egitarau zabala dute egunez egun. Zuhatza Kolore Anitz taldeak kudeatzen du ekimena.

Aldizkari hau inprentara bidean zegoenean, bigarren txandan murgilduta zebiltzan eta, hortaz, abuztuko alean izango duzue berri gehiago. Urtero legez, argazki bilduma osatzen saiatuko da *Berriketan*. Bitartean, kaleetan gora eta behera ikusiko dituzue, jolas, dantza eta kantu-kantari!





AMODIOZKO GUTUNAK 2018

Amodiozko gutunen lehiaketa egin da aurten ere Mendata institutuan, San Balentin egunaren bueltan, eta lehiaketara aurkeztutako lan aipagarri batzuk bildu nahi izan ditu *Berriketan*-ek orrialde hauetan. Uztailean ez ezik, abuztuan ere argitaratuko ditugu gazteen idatziak.

Laugarren mailako ikasleek gutun itxurako idazlanak aurkeztu dituzte lehiaketara eta lehenengo mailako gaztetxoek orlerkiak prestatu dituzte. Saritutako lanak eta aipamen berezia lortu dutenak dituzue hemen irakurgai:

Kaixo, aitatxo

1999-02-12

Kaixo, aitatxo:

Gutun hau idazten ari natzaizu zuk nire dudak edo zalantzak argituko dituzun esperantzarekin. Gauza da ez dudala ezer ulertzen. Ez dut ulertzen zergatik amak ez duen jaten, zergatik egiten duen negar ni ohartzen ez naizela pentsatzen duen bakoitzean. Azkenaldian, dena hankaz gora jarri dela iruditzen zait. Amama denbora guztian dago etxean amarekin eta biokin, eta zu, berriz, urrun zaudela esaten dit amak, denbora luze batean ez zaitudala ikusiko. Zergatik?

7 urte ditut, bai, baina ez zait bidezkoa iruditzen amak egia guztia ez kontatzea eta oraindik gazteegia naizela esatea, urte batzuk barru ulertuko dudala... ba ez! Nik zu nire ondoan nahi zaitut, nirekin behar zaitut. Zurekin futbol partidak ikustera joan nahi dut, iluntzera arte beldurrezko

pelikulak ikusten geratu, eta hainbatetan aipatu ditugun plan horiek guztiak egin. Zergatik ez duzu egiten planik amatxorekin? Nire gelakide guztiek egiten dituzte planak familian, baina guk bat ere ez... Nire gelakideen gurasoek muxu ematen diote elkarri; lagun batek esan zidan elkar maite dutelako zela. Zergatik ez diozu amatxori niri bezala muxu ematen? Ez duzu amatxo maite? Ez dut ulertzen.

Duela bi aste, eskolatik etxera itzultzen ari nintzela, etxera sartu eta ama negarrez zegoela ikusi nuen. Bera nigan-dik ezkututzen saiatu zen eta sukaldatzen zegoela begian gatz pixka bat sartu zitzaiola esan zidan, baina nik banekien mina zuela. Mina zuen begi ondoan zuen beltzuneagatik. Nik horrelako beltzune mordo bat egiten ditut futbolean jokatzen eta badakit min handia egiten dute-

la, baina amatxok ez badu futbolean jokatzen, eta ez badu ezer egiten, nondik aterazen beltzune hura? Zergatik esan zidan gezurra? Eta zu zergatik ez zeunden etxean amatxo laguntzen? Zergatik amatxori zu non zeunden galdetzean, gaiztoa zine-la erantzun zidan? Nik badakit hori ez dela egia eta ez dakit zergatik esan zidan hori amatxok.

Hau guztia esanda, ez dut astuna izan nahi, gainera etxeko lan mordo bat ditut egiteko oraindik. Aitatxo, itzuli etxera mesedez, izan gaitezen familia bat, ez dut besterik eskatzen. Amatxok edo nik mindu zaituen zerbait egin badugu barkatu, baina nire ondoan nahi zaitut! ILAR-GIRAINO ETA BUELTA MAITE ZAITUT, AITATXO!

Zure Saratxo

ANE TXURRUKA (4. MAILA)

Maitasunezko istorio bat

Otsailak 14, San Balentin eguna,
denak maitemindurik
arreba, laguna eta bizilaguna,
baina ez ni,
ez dut sentitzen maitasuna
baina badut maitemintzeko gogorik.

Amak izotza bezain hotza naizela esaten dit.
Egia esan, ez zaio falta arrazoirik,
lagunak ligatzeko aholkuak ematen dizkit,
baina ez dudanez onak direla pentsatzen,
ez diet egiten kasurik,

eta esaten diot ez dudala nahi aholku gehiagorik.
"Bikotea edukitzea munduko gauzarik hoberena da"
beti dabil aita;

"Zergatik ez zaizu inor gustatzen?",
aldiz, dabil beti nire ama.

"ondo nago horrela, zertarako nahi dut ondo dagoena aldatu?"
nik ahoan daramat.

Beharbada maitemindu naiz, bai,
baina ez dut uste
berak nirekin egotea duenik nahi.
Hala ere, ni gutxinaka,
beregana hurbiltzen naiz
isil-isilik, pausoka-pausoka.

Bere begiak itsaso zabala bezain urdinak,
eta zer esanik ez,
bere ile marroixka,
edota haren
ahots fina.

Eztituta nago
nahiz eta maitatua ez sentitu,
esperantzarik badago,
baina ez dut ezer ere ez aurkitu,
arrazoi hauengatik
ez zait animoa piztu.

DANEL FURONES (1. MAILA)

ERREPORTAJEA

Nola egiten dira erreportajeak? Testuaren egitura, ezaugarriak, helburuak, elkarrizketak nola egin, hizkuntzaren erregistroa... Mendata institutuko bigarren mailako ikasleek kazetaritza genero hori aztertu dute aurten, Euskara eta Literatura irakasgaien. Hiru hilabetez baliabide ezberdinak landu dituzte, amaieran, bakarka, erreportaje bat sortzeko. Aukeratutako gaiaren inguruko informazioa emateaz gain, irakurlearengan modu batera edo bestera eragitea izan dute helburu.

Ikasleek aurkeztutako lan batzuk (hiru guztira) jaso ditugu erredakzioan. Eta, zalantzarik gabe, atseginez argitaratuko ditu *Berriketan*-ek irakurle guztien eskura egon daitezen. Hilabete honetan, abuztuan eta urrian izango dituzue irakurgai.

Berriketan aldizkarian sakontzen

Deban hain ezaguna den "Berriketan" deituriko aldizkariaren inguruko erreportajea da honakoa. Haren jatorriaren eta historiaren berri izango dugu. Urteetan zehar nola aldatu den azalduko dugu, baita honi buruzko zenbait bitxikeria aipatu ere.

Jatorria

Herriko euskaltzale talde bat bildu zen 1997ko uztailan. Hasiera batean, aldizkaria sortzeko ideiarekin bildu zen idaztearekin nolabaiteko lotura zuen jendea (kazetariak, filologoak, idaztea gustuko zutenak). Inguruko aldizkariekin harremanetan jartzen hasita, laster ohartu ziren hori proiektu zabalago baten barruan egin behar zela, eta Zuhatza Euskara Elkarteak sortu behar zutela lehendabizi. Gaiaz jabetzeko, soziolinguistika ikastaro bat burutu zuten lehen pauso bezala.

Hori horrela, *Zuhatza Berriketan* herri aldizkariaren lehen aleak 1998ko abuztuan ikusi zuen argia.

Izaera eta argitalpenak

Herri aldizkaria da *Berriketan* eta herriko albisteak biltzen saiatzen da. Elkarrizketak, erreportajeak, iritzi ezberdinak, gutunak... ere kaleratzen dituzte, betiere herri mailako kontuak hizpide hartuta. Institutuko prentsa tailerrarekin ere lankidetzan dute eta gazteek kolaboratzen dute argitalpenean.

Bere sorreratik hilerok kaleratzen da, hilean aldizkari bat, eta gaur egun 11 ale egiten dituzte urtean. Irailean ez da kaleratzen, eta abuztuko alea jai bezperatan argitaratzen dute.

Urteetan zehar izandako aldaketak

Zuhatza Euskara Elkarteako koordinatzaileak eta aldizkariko erredakzio

taldeko kideek argitu dutenez, "aldaketa asko burutu dira urte hauetan; hasieran, adibidez, 8 orriko aldizkaria izan zen, eta gaur egun 20 orrialdeko aldizkaria da".

Orri kopuruaz gain, orain dela 10 bat urte aldizkaria koloretan kaleratzera pasa ziren eta edukietan ere urtez urte aldaketak burutu dituzte. Garai berrietara egokitzen saiatzen dira.

Hizkuntzari dagokionez, ordea, ez da aldatu. Betidanik euskaraz aritu dira idazten, izan ere, Zuhatza Euskara Elkarteak bultzatutako ekimena da aldizkaria. Herriko albisteak euskaraz emateko eta euskalgintzari bultzada emateko egiten dute lan, herrian euskara eta euskal kultura zabaltzeko eta, noski, euskara gehiago erabiltzeko.

GARAZI GARRIDO



1998ko abuztuan kaleratu zen *Berriketan* aldizkariaren lehen alea.



Hilabetekariak dagoeneko 230 zenbaki plazaratu ditu bere ibilbidean.

AGENDA

UZTAILAK 21, LARUNBATA

-22:30. **Moda desfilea: "Iraganean josia"**. Zumardiko kioskoan.

UZTAILAK 22, IGANDEA

-12:30. **Kontzertua: Debako Musika Banda**, Itziariko santutegiaren atzean.

UZTAILAK 27, OSTIRALA

-19:30. **Azken ostirala**. Elkarretaratzea euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen alde, plazan.
-22:00. **Kantu afari herrikoia: "Bizi eta prest"**. Tal-ka musika taldea. Plaza zaharrea (*Iturri ondoan*).

UZTAILAK 28, LARUNBATA

-22:00. **Mendi ibilaldia gauez**, Itziariko plazatik abiatuta. Itziar-Andutz-Lastur-Arbil-Itziar.
-23:00. **Dantzaldia**: Debako Musika Bandaren eskutik, Foruen plazan.

UZTAILAK 29, IGANDEA

-20:00. **Organo kontzertua**: Montserrat Torrent,

Santa Maria elizan.

UZTAILAK 30, ASTELEHENA

-22:00. **Kontzertua: Aitzuri Abesbatza**, Santa Maria elizako klaustroan.

ABUZTUAK 3, OSTIRALA

-20:00. **Kontzertua: The Blues Freaks (Toledo) eta John Duer (Austin, Texas)**, Ondargain tabernan.

ABUZTUAK 4-8

-Kopraixak Itziarren.

ABUZTUAK 10, OSTIRALA

-20:00. **Kontzertua: Zazkel (Zeberio)**, Ondargain tabernan.

ABUZTUAK 11, LARUNBATA

-Musika eta Euskal Surf Kultura Festibala (Feder Arte eta Debarock), hondartzan. SUP lasterketak, murala, azoka, bazkaria, Emakumea Surfari... eta Deba Rock jaialdia -10. urtemuga-.

Erakusketak

-Agirre jauregiko erakusketa gelan: **"Etxolak"**, Willy & Sara Berasaluze (uztailak 17-abuztuak 2).
-Elizako klaustroan: **"Etxalde baten omenez"**, Josette Dacosta (uztailak 1-abuztuak 31).

Debako XXXV. Udako Musikaldia

-Bost kontzertu antolatu dira aurtengo Udako Musikaldiaren baitan. Emanaldiak elizan izango dira (klaustroan gehienak) eta iluntzeko 20:00etan emango zaie hasiera. Hona hemen egitaraua:

***Abuztuak 2, osteguna: LAMIN** (Kalakan eta Duo L'incontro).

***Abuztuak 9, osteguna: Organo kontzertua**: Xabier Kaltzada (flauta), Jone Bolivar (klarinetea) eta Fernando Gonzalo (organoa).

***Abuztuak 22, asteazkena: Kontzertu didaktikoa**: "Historia inventada de la música inventada".

***Abuztuak 23, osteguna: Soinuaren Bidaia**, tronbon eta soka laukotea.

***Abuztuak 30, osteguna: Txanbela Otxotea**.

Udako ordutegia udal liburutegian

-Ostolaza Udal Liburutegiak udako ordutegiarekin jarraitzen du.

*Liburutegi orokorra: astelehenetik ostirale-
ra, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik.
Haur/gazte liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **uztailak 20, 21, 22, 30, 31.**
abuztuak 1, 2, 17, 18, 19.

Burgoa Zuazo:
abuztuak 3, 4, 5, 13, 14, 15, 16.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: uztailak 21 eta 28

BURGOA ZUAZO: abuztuak 4 eta 11

9:30 - 13:00

Uzuri
optika audio
www.uzurioptika.com

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN

Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

LIZ.-ZK.: 3

Taxi Alain Deba

636 135 008
alain@taxideba.eus

www.alain.taxideba.eus

Wi Fi

ZERBITZUAK

- ▶ Partikularrentzako zerbitzuak egunean 24 orduz
- ▶ Enpresentzako zerbitzuak egunean 24 orduz
- ▶ Aireportuetara joan-etorriak
- ▶ Ekitaldietarako luxuzko zerbitzua

EZAUGARRIAK

- ▶ Larruzko eserleku berogarriak
- ▶ wifi-konexioa
- ▶ Android eta iOS gailuentzako kargagailuak



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki errepartaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf.: 685 703 843



MARIJE CASTRO IRIBAREN

- Masaje terapeutikoak
- Kiroletako masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Manipulazio txinatarra

MASAJISTA

25 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615

DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasas
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel./faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

RAIKETAK S.L.

SAGARMIÑA

✉ Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

☎ Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

🌐 sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29



Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatzeta

943 191 383
berriketan@zuhatzeta.com




ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA

TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197



urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº 379

Higiezin Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net



MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta implanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba




ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Enpresa Registrada Nº 21051049
NIVEL 2



ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



- Autokarabanen, karabanen eta furgoneten salmenta, alokairua eta konponketa
- Tailer zerbitzua, epe luzerako parkinga, garbiketa-gunea eta ur karga eta deskargak
- Karabanin eta kanpin osagai-denda
- Homologazioak, kanperizazioak...
- 4.000 m2-tik gorako instalazioak



Itxaspe Auzoa, 3 –20829 Itziar (Gipuzkoa)
943 05 08 03 – 664 685897
www.inercaravan.eus

2018KO EUSKAL JAIA IRAGARRIKO DUEN KARTELA AUKERATZEKO ERAKUSKETA ETA HERRI BOZKETA

*Uztailaren 26an (osteguna)
19:30etik aurrera
plaza zaharrean*

Animatu eta parte hartu!!!

